

# EUSKAL BERTZAKIAK

## EUSKAL JELTZALETASUNA ETA BERAK BIZKAIARENTZAT EGIN ZUEN PROPOSAMENA (1917)

**A**ntzina norbaitek esan zuen politika egin daitekeenaren artea dela; nik hauxe gehituko nuke: «...alferreko minik edo zapuzterik sorrarazi barik». Arestian ikusi ditugun gertakariak izan daitezke esan dudanaren ispilu. Bada, orain hizpide dudan gaia politikaren artearen eruduzko erabilera duzue.

1917. urteko maiatzaren 4an Ramon de la Sota y Aburto Bizkaiko Aldundiko lehenengo ahaldun nagusi jeltzale bihurtu zen (lehendakari, beraren hitzetan). Udalez gairik erakunde bateko buru suertatu zen lehenengoz hautagai jeltzale bat. Izan ere, jeltzale demokratikoen estreina irabazi zituzten hautakundeak gehiengo osoz. Horrenbesterekin, euskal jeltzaleen lehenengo gobernuaren ehungarren urtemugan gaude.

Euskal jeltzaleen burua Ramon de la Sota izan zen. Haren gainean zertzelada gutxi batzuk emango ditut. Ramon de la Sota Getxon jaio zen 1887an, Ramon de la Sota y Llanoren semea izan zen, 1913an alderdikidetu zen Euzko Alderdi Jeltzalean, 1917-1919ko tartean Bizkaiko ahaldun nagusia izan zen,

1936ko guduan bere ontziak Euzko Gudarostean eskuetan jarri zituen, erbesteratu behar izan zuen eta 1978ko abuztuaren 5ean hil zen Biarritzen.

Gizon honek euskal jeltzaleen taldea zuzendu eta gobernu-egitarau bat proposatu zuen Bizkaia gobernatzeko, betiere gaineko euskal lurraldeak gogoan hartu, eta haiekiko harremanak estutu eta euskal herriaren lehengo askatasun-erantzua berreskuratu nahian. Berak bere egitarauan dioen legez: «*Jaun-Goikoa eta Lagi-Zarra de nuestros abuelos, el Jaun-Goikoa eta Lagi-Zarra de nuestros padres, el Jaun-Goikoa eta Lagi-Zarra nuestros Dios y Ley Vieja*». Hemen dugu “*katea ez da eten*” esakeraren formulazio bat.

Jarraian, euskal jeltzaleen gobernu-egitarauaren ezaugarri nagusiak aletuko ditut, betiere haien egitarau hura bera oinarri hartuta (Bizkaiko Probintziako Aldizkari Ofizialaren 1917ko maiatzaren 23ko alean argitaratu zen). Aldez aurretik, ohar bat egin behar dut: ez dut jardungo nire mahaikideek landuko dituzten arloez, iragaitzaz ez bada. Hona hemen, bada, ezaugarri nagusi horiek:

# GOTZON LOBERA REVILLA

ITZULTZAILEA ETA  
UZTARRI FUNDAZIOKO LEHENDAKARIA

**1. Pertsona helburu.** Ez naiz erratu, ez. Ramon de la Sotaren berbetan: «*Por este lema [Jaun-Goikoa eta Lagi-Zarra] primeramente y ante todo obraremos como católicos y luego como vascos*». Hau da, berak orduan sinesmen orokorra zena, pertsona gehien-gehienek partekatzen zutena, jarri zuen bere iritzi politiko berezien ginetik. Eta pertsona guztientzat, batez ere behartsuenentzat gobernatu nahi duela argi agertzen da: «*Los puertos de nuestra costa son obras también de importancia capital para nosotros: hoy nuestros puertos son completamente inadecuados para albergar las embarcaciones que los usos modernos de pesca y la seguridad de nuestros pescadores requieren. (...) La reforma del caserío es una obra que indudablemente se impone. Hoy nuestros baserritarras, nuestra población rural, vive en habitaciones antihigiénicas y malsanas, en verdaderas zahúrdas*». Argi ageri da non jartzen duen politika jeltzalearen helburua: pertsonarengan. JEL hura egun GEB bihurtu dela esango nuke: *Gizakia eta Burujabetasuna*.

**2. Apaltasuna eta burubikotasuna** (euskal jeltzaleen jardueran orduetik hona aldatu ez den printzipioa). Honelaxe diosku Ramon de la Sotak: «*... esta estima y este agradecimiento solamente debo de concederlos por aquella parte externa y aparential del cargo, que es la única con que me investís, porque por lo demás ni yo traigo a este sitio orientaciones propias, ni vosotros los diputados nacionalistas me habéis elegido por mi habilidad para gobernar los asuntos de Bizkaia. Como digo, no vengo para hacer una labor individual ni para hacer uso de mi criterio en la resolución de los asuntos que se planteen*

*o presenten al fallo de esta corporación; vengo únicamente a seguir las orientaciones políticas de la agrupación nacionalista vasca*».

**3. Zuztarreko jeltzaletasuna** agertzen du: «*Como vascos nuestro fin primordial es el desenvolvimiento de la personalidad colectiva de la raza. El total desenvolvimiento colectivo de la raza no puede ser alcanzado dentro del régimen político por el que hoy se gobierna Bizkaia*». Euzko Alderdi Jeltzaleak egundaino erakutsi duen gogo politikoaren ispilu ezin garbiagoa dugu hau. Areago, *desideratum* hori bide zehatz batetik jadetse nahi du, eta horrela azaltzen du: «*Es pues, necesario el que trabajemos por alterarlo radicalmente para que en asuntos vascos nos rijamos por un Gobierno Vasco, enteramente vasco; es decir, que en el terreno legal estemos en donde nos encontrábamos en los tiempos anteriores a la Ley de 25 de octubre de 1839*». Hemen dator proposamen politiko zehatza euskal jeltzaleek lortu nahi duten helburu politikoari begira. Nik dakidala, hauxe da lehenengo aldia euskal gobernu bat aldarrikatzeko maila honetako erakunde batetik egiten dena.

**«ES PUES, NECESARIO EL QUE TRABAJEMOS POR ALTERARLO RADICALMENTE PARA QUE EN ASUNTOS VASCOS NOS RIJAMOS POR UN GOBIERNO VASCO, ENTERAMENTE VASCO; ES DECIR, QUE EN EL TERRENO LEGAL ESTEMOS EN DONDE NOS ENCONTRÁBAMOS EN LOS TIEMPOS ANTERIORES A LA LEY DE 25 DE OCTUBRE DE 1839».** HEMEN DATOR PROPOSAMEN POLITIKO ZEHATZA EUSKAL JELTZALEEK LORTU NAHI DUTEN HELBURU POLITIKOARI BEGIRA. NIK DAKIDALA, HAUXE DA LEHENENGO ALDIA EUSKAL GOBERNU BAT ALDARRIKATZEKO MAILA HONETAKO ERAKUNDE BATETIK EGITEN DENA

«ES PRECISO QUE A ESTA PARTE DE NUESTRA POBLACIÓN SE LE ENSEÑE EN EUSKERA; NATURALMENTE QUE PARA ELLO TENDREMOS QUE RECARAR DEL ESTADO UNA LIBERTAD ABSOLUTA EN MATERIA DE ENSEÑANZA CONJUNTAMENTE CON LAS OTRAS DIPUTACIONES». GAUR, EHUN URTE GEROAGO, ESAN DEZAKEGU HORI LORTUTA DAGOELA

**4. Errealismo politikoa.** Baina orduko jeltzaleek, gaurkook legez, badakite jakin aldaketak ez direla bat-batean gertatzen, badakite oinarri ahula daukatela lanerako eta aldi berean badakite aukera politiko bat daukatela gauzak arian-arian aldatzen joateko: «Naturalmente que estas corporaciones [es decir, las diputaciones provinciales] no son consideradas por nosotros como las más adecuadas para desarrollar nuestro programa, no solamente porque su constitución es defectuosa, sino también porque su actuación es una constante conculcación de nuestros derechos hereditarios. Contra esta conculcación materializada por diferentes leyes, debemos los vascos protestar en todo tiempo... En estas corporaciones de índole casi puramente administrativa poco podemos hacer en la dirección del logro total de nuestras aspiraciones; pero sí podemos encauzar las energías de nuestro Pueblo en forma tal, que cuando el día de cambio de nuestro régimen gubernativo llegue, este no sea saludado con un fracaso rotundo, cosa que ocurriría si nosotros no iniciáramos al Pueblo vasco en los derroteros de una conciencia de su propia personalidad y no depuráramos el ambiente de mixtificaciones malsanas». Gaurko hainbat politikarientzat eredu. Zoritxarrez, urrunera joaten gara maiz eredu bila, eredurik egokiena etxean bertan daukagula. Esaera zaharrak dioen legez: «Urruneko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau». Ikuspegi bera azaldu zuen Xabier Lete

Bergaretxe oiartzuar olerkariak bere olerki ospetsu baten: «Nik ez dut amets handirik, / etorkizunaz egiten, / bat-bateko librakuntzaz / ez dut aspaldi sinesten».

**5. Arian-arian jardun beharraren kontzientzia.** Lehen mailako irakaskuntzaz diharduela, Ramon de la Sotak badaki asko egiteko dagoela, baina oinarriak jartzen ditu jarduera politikoan aurrera egiteko: «En esta clase de enseñanza creemos que debe llevarse a cabo un cambio absoluto y radical en la forma de practicarla. Todos sabéis que en la parte rural de Bizkaia hay una masa importante de población joven que no conoce el castellano, que habla simplemente el euskera; a esta juventud se le enseñan las primeras letras en castellano. Y resulta que como no entienden lo que se les enseña, salen de las escuelas sin saber leer ni escribir; es decir, que han perdido el tiempo. Es preciso que a esta parte de nuestra población se le enseñe en euskera; naturalmente que para ello tendremos que recabar del Estado una libertad absoluta en materia de enseñanza conjuntamente con las otras diputaciones». Gaur, ehun urte geroago, esan dezakegu hori lortuta dagoela. Hark bazekien bere jardun politikoan helmugaraino ez zela helduko, baina mugarriak jarri zituen bidean gaur egun guk hori lortuta dagoela esateko.

**6. Bultzada politikoa.** Aurreko kasuan legez, irakaskuntzaren gainerako arloetan diharduela, hau da, lanbide heziketaz eta unibertsitateaz ari dela, honelaxe diosku: «En la parte referente a la enseñanza que se da en las llamadas escuelas de artes y oficios, debe llevarse a cabo un cambio, también profundo e importante. Es necesario que la enseñanza que en aquellos centros se da sea más práctica, con objeto de que de ellos salgan los obreros cultos y adiestrados que la moderna industria requiere. Iniciaremos también la institución de una Universidad Vasca, puramente vasca, de estudios vascos. Pero sobre este tema no debo daros detalles, puesto que nosotros solo podemos iniciar la idea, (...)». Formulazio hau erabat modernoa da. Gaur egun esango genukeenez, borondate politikoa agertzen du geroago gorpuztu nahi den errealitatea lortzeko.

**7. Erakunde-ekimena interes orokorraren alde.** Euskal jeltzaleek garbi dute kontu batzuk ezin konpon daitezkeela ekimen pribatuaz eta erakunde ofizialen ekimena

ezinbestekoa dela: «*En el grupo de obras que vengan a acrecentar la riqueza patrimonial del País, podemos incluir aquellas obras públicas de carácter general... No hace falta que yo encaresca la importancia de la repoblación. Todos conocéis el terrible azote que es para un País la despoblación de sus montes*». Eta hori dio ekanduz eskuindartzat jotako alderdi bateko enpresaburu batek. Dena dela, gaur egun antzera suertatzen da, eta, Euskal Autonomia Erkidegoa gizarte-gastuetan gehien egiten duen autonomia erkidegoa izanda, batzuek behinolako eskuindar-zintzilikarioa leporatzen diote Euzko Alderdi Jeltzaleari, bien bitartean euren burua ezkertiar eta aurrerakoitzat jotzen duten alderdiek maila horretara heltzeko tarte luze-luzea falta dutela.

## 8. Ustelkeriarik eza eta prestutasuna.

Honelaxe dio Ramon de la Sotak 1917ko maiatzaren 4an: «*En el capítulo de caminos y carreteras nuestra labor será fecunda. Nosotros opinamos que la Diputación de Bizkaia debe construir todos aquellos caminos que sean de utilidad general, cortando de raíz el feo vicio de construir carreteras que solamente benefician a particulares. Estas carreteras suelen ser algo así como una letra que se gire contra la Diputación de Bizkaia en pago de gastos electorales*». Garbi dago gaurko askok euren birraitonen ekandu txarrari eusten diotela, hau da, sehaskan edandako esnetik dirautela egun ere berdín edaten. Euzko Alderdi Jeltzaleak bere historian zehar, osterá, garbitasuna izan du goiburu, eta horren adibidea Ramon de la Sotaren berbetan topatzen dugu.

**9. Ez ezarri bata besteari, ez galarazi bata besteari.** Hauxe dugu 1917ko euskal jeltzaleek adierazi zuten ideia, beste formulazio batekin, baina asmo bera dakarrena. Ramon de la Sotaren berbetan: «*Quisiera ahora hablaros de algo que es sumamente importante. Me refiero a las relaciones de esta corporación con el Estado; relaciones que nosotros juzgamos no han sido tratadas por las anteriores diputaciones con el cuidado y atenciones que su gran importancia requieren. Nosotros nos proponemos cultivar estas relaciones con el interés y la asiduidad que merecen, manteniendo siempre con tesón los que creemos son nuestros derechos, pero teniendo siempre en cuenta que nuestras reivindicaciones no van ni pueden ir contra ninguna de las regiones que integran el Estado español ni contra*

*los intereses del Estado mismo*». Horrenbesterekin, badugu formulatuta gaur egun Euzko Alderdi Jeltzaleak eta beraren gobernua behin eta berriro aldarrikatzen duten oinarriko printzipio demokratikoa: alde biko harremanetan alde biak dira berdínak eta parekoak; areago, nik negozio on bat egingo dut nirekin harremanak izan dituen aldearentzat ere negozio ona izan bada, bestela, jai dago, goizago edo geroago arazoa berpiztuko da eta!

## 10. Eskua zabalik beste alderdi politikoentzat, eta eskuzabaltasuna.

Ramon de la Sotak eta beraren talde jeltzaleak garbi dute, eurak gobernuan izanagatik, gobernuan ez daudenekin jokatu behar dutela: «*Yo lamento sinceramente que los diputados que se sientan en esos bancos frente a los nuestros no se encuentren en este salón, pues quisiera terminar haciendo un llamamiento a la concordia de todos los que forman esta corporación para manifestarles que nosotros, al entrar en esta casa, hemos dejado en sus umbrales todos los rencores que pudiéramos sentir contra ellos por pasados agravios, para rogarles y pedirles*

HORI EZ EZIK, BESTE ITAUN  
BAT EGIN BEHAR DIOGU GEURE  
BURUARI: PREST GAUDE MOISESEN  
SINDROMEA EROATEKO? BÉSTELA  
ESANDA, PREST GAUDE ONARTZEKO  
GEURE BIZITZAN LAN EGIN  
BEHAR DUGULA ETORKIZUNEN  
ASKATASUNA EZ IKUSTEKO?  
BELAUNALDI BAKOITZARI DAGOKIO  
BEREA, GURE SEME-ALABEK ETA  
GURE ILOBEK GUK NAHI DUGUN  
ASKATASUNA IKUSIKO BADUTE, GUK  
PREST EGON BEHAR DUGU SINAIREN  
ATEETAN GELDITZEKO

**«EL CONCIERTO ECONÓMICO NO ES UNA CUESTIÓN DE PAGAR MENOS, SINO DE ADMINISTRAR MEJOR. NATURALMENTE QUE ESTA ES UNA OBRA QUE NO PUEDE SER PATRIMONIO DEL NACIONALISMO VASCO, PORQUE ES UNA LABOR FUNDADA EN ASPIRACIONES DE TODOS LOS VASCOS»**

como les pido su apoyo y cooperación, pero un apoyo leal y entusiasta en esta obra que consideramos no solo del partido nacionalista, sino de todos los vascos: en esta obra de encauzar a nuestra Bizkaia por el camino que ha de conducir al pueblo vasco al lugar que Dios tiene reservado a los pueblos que supieron crear una personalidad y una cultura propia». Bikain. Ez dago beste barbarik. Ezberdinen arteko lankidetzaz ezinbestekotzat hartu zuten orduko jeltzaleek, gaur egun asko ezinbestekotzat hartzen dugun neurri berean. Erabatekokeria, berdinkeria, iritzi-bakarkeria ez dira metodorik onenak guztiontzat nahi dugun herri bat eraikitzeko. Ezberdin dena areriotzat hartzen duenak arrisku handia dakar gizatasunaren aurkako krimenak egiteko. Historia horrelako aleez blai dago zoritxarrez. Ez da alferrekoa gomutara ekartzea Marko Tulio Zizeronek esanikoa: «Euren historia ezagutzen ez duten herriak kondenatuta daude euren historia berriro egiteko». Ez al zaigu euskaldunoi berdin suertatuko!

Honi dagokionez, gauza bat nabarmendu nahiko nuke. Ramon de la Sotak esan zuen: «Yo lamento sinceramente que los diputados que se sientan en esos bancos frente a los nuestros no se encuentren en este salón». Kontura gaitezkeenez, herriaren gogoaz ordezkatzen duten erakundeetara ez azaltzea ez da azken berrogeita hamar urteetako kontua. Orduan ere baziren herriaren gehien-goaren gogoarekin ados egon ez eta herriaren

ahotsa isildu nahi zutenak, zelan eta eurak ere herriaren zati baten gogoaren ordezkeri izanik erakunde herrikoietan esku hartzeari uko eginaz. Demokrasiaren oinarrian dago elkarrizketa. Elkarrizketa berdin pentsatzen ez dutenen artean, guztiontzat onuragarriak diren kontuak jadesteko. Ereduzkoa da, ostera, Ramon de la Sotak hala jokatu zutenei eman zien erantzuna: eskua zabalik elkarrekin berba egiteko eta guztion arteko hitzarmenak lortzeko. Horixe dago Euzko Alderdi Jeltzalearen odolean, bai orduan eta bai egun.

### **11. Esku-hartze publikoa ekonomian.**

Gomuta gaitezen urte horretan, 1917an, hil batzuk geroago Errusian iraultza boltxebikea gertatu eragin zutela Leninek eta beraren alderdiak, lurreko paradisuaren peskizan. Bada, sei hilabete aurretik Euskadiko Itsasertz Abertaseko enpresaburu batek honako hau aldarrikatu zuen: «No podemos esperar que en un País en donde la propiedad rinde tan poco fruto, ponga la iniciativa privada remedio a este grave mal. Es preciso atajarlo con el apoyo y los medios oficiales». Lurtar paradisuazale haiek, ostera, eurek maite esaten zuten herria gosez hil zuten. Betiere, lehen esan dudanez, Ramon de la Sotak pertsona zuen gogoan, Leninek, ostera, masak. Masak ez dira pertsonak, masek ez dute arimarik, halandaze, berdin dio bat ala milioi bat hiltzen bada, garrantzitsuena elite baten helburu politikoa lortzea baita.

### **12. Euskal lurraldeen arteko lankidetzaz.**

Ramon de la Sotaren euskal izaera ezin gardednago ageri da hirurogeita hamar urte geroago Jose Maria Makua Zarandona Bizkaiko ahal-dun nagusiak esan zuen honetan: «Bizkaitarra naizelako naiz euskalduna; euskalduna naizelako naiz bizkaitarra». Bada, Ramon de la Sotak, bere euskalduntasunean, argi dauka Bizkaia datzekion eskubideak beste euskal lurraldeekin batera aldeztu behar dituela: «Por eso nosotros desde aquí reclamamos la cooperación de todos aquellos, sobre todo la cooperación de las instituciones culturales y económicas cuyos consejos serán por nosotros recibidos con un propósito firme de llevarlos a la práctica siempre que sus consejos sean dados con el espíritu de desinterés y patriotismo que nosotros les pedimos. Para parte de esta labor es necesario contar con la cooperación y ayuda de las provincias hermanas; para ello y para resolver problemas

que nos son comunes y para evitar ciertas asperezas que desgraciadamente han sido suscitadas, es necesario que establezcamos algún nexo común, pueda ser que siguiendo las líneas de una mancomunidad». Prest gaude gu, egun, orduko euskal jeltzale handi haiek onartu, diseinatu eta jorratu zuten bide berean jarraitzeko? Horixe da geure buruari egin behar diogun itauna. Sarri entzuten izan dugu Eusko Legebiltzarrak duen ordezkarietza ez-orekatua, maiz entzuten izan dugu hiritar gutxi batzuek gehiengoaren nahien gaintik jartzen dutela euren burua. Hori guztia hala izan daitekeela onartuagatik, nik hauxe ikusten dut: euskaldun guztiak modu orekatuan batu ditzakeen egitura politikoak konfederala izan behar du, euskal lurralde guztiek erabakimen bera izanik, bestela jai dago. Orduko jeltzaleek oso garbi zuten bidea ez zela erraza izango, baina, aldi berean, ederto baten zekiten ez zegoela beste biderik hortik at. Hori ez ezik, beste itaun bat egin behar diogu geure buruari: prest gaude Moisesen sindromea eramateko? Bestela esanda, prest gaude onartzeko geure bizitzan lan egin behar dugula etorkizuneko askatasuna ez ikusteko? Belaunaldi bakoitzari dagokio berea, gure seme-alabek eta gure ilobek guk nahi dugun askatasuna ikusiko badute, guk prest egon behar dugu Sinairen ateetan gelditzeko. Hori niretzat ezinbestekoa da katea etengo ez bada, eta, nire ustez, gaur egungo jeltzaleok hori onartu behar dugu, oiartzuar olerkariaren berbak gogoan izanik. Ala gaur egungo egoera ez ote da hobea ordukoa baino? Nork bere lurraldean, nork bere esparru politikoan, euskaldunok gaur egun ditugun eskumenen maila askozaz hobea da Ramon de la Sotak bere garaian topatu zuena baino. Ala ez?

### 13. Erakundeak ez norbereganatzea

(bestela esanda, erakundeak ez patrimonia-lizatzea). Ramon de la Sotak ezin garbiago uzten du berealdiko garrantzidun printzipio hau: «*El Concierto Económico no es una cuestión de pagar menos, sino de administrar mejor. Naturalmente que esta es una obra que no puede ser patrimonio del nacionalismo vasco, porque es una labor fundada en aspiraciones de todos los vascos*». Ramon de la Sotak garbi dauka Kontzertu Ekonomikoa, bere ahulezia guztiakin, tresna erabilgarria dela, eta hori euskaldun guztien onurarako erabili behar duela. Eta printzipio nagusi hori lortzeko formula zabal bat eskaintzen du,

haren jarduera politikoan ikur bihurtuko zen beste printzipio hau erabiliz.

### 14. Kontzertu Ekonomikoaren defentsa.

Alderdi honek berealdiko garrantzia du euskal jeltzaleen 1917ko gobernu-egitarauan. Horregatik, hemen azaltzen dut, eta ez aurretik, azalpenaren arrazoiengatik. Ikus dezagun zeintzuk diren orduko euskal jeltzaleek Kontzertu Ekonomikoaren gainean zituzten iritziak:

«*Es lógico que uno de los primeros fines de nuestra actuación sea la defensa enérgica del Concierto Económico como una continuación y sobre todo como un reconocimiento tácito del principio teórico de nuestras viejas libertades y derechos conculcados por diferentes leyes: una continuación misérrima, si queréis, pero que debe servir de base para nuestros trabajos en pro del logro de nuevas franquicias y nuevas libertades.*

*Solamente he de deciros que nosotros opinamos que el Concierto Económico no consiste en que nosotros paguemos más al erario provincial que lo que pagan al Tesoro público aquellos ciudadanos sometidos a la tributación directa del Estado. Nosotros tenemos mayores exigencias de comodidad privada y pública que esos ciudadanos, y para tenerlas es preciso que paguemos por lo menos tanto, y si es necesario hasta más.*

*El Concierto Económico no es una cuestión de pagar menos, sino de administrar mejor. Naturalmente que esta es una obra que no puede ser patrimonio del nacionalismo vasco, porque es una labor fundada en aspiraciones de todos los vascos».*

Ozenago esan liteke, argiago gaitz. Ez litzateke txarra izango pasarte hau Kontzertu Ekonomikoari buruz hainbeste traukeria esan dituztenei ematea. Irakurriko ahal lukete!

Kontzertu Ekonomikoak helburu bi betetzen ditu, bata bestearekin uztarturik baino ezin uler daitezkeenak: 1) alde batetik, 1839ko urriaren 25a baino lehenagoko egoerara bihurtu nahi du; hauxe da helburu politiko nagusi eta behinena, eta Lege Zaharraren aztarna da Kontzertu Ekonomikoa; eta 2) euskaldunoi dagozkigun kontuak guk gobernatu nahi baditugu, Kontzertu Ekonomikoa tresna da hori lortzeko; hauxe da helburu politiko pragmatikoa, eta helburu politiko nagusiaren zerbitzuaren mendean jartzen duena.



